

**GOBERNANTZA IREKI ETA KULTURAKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIAREN EBAZPENA.
HONEN BITARTEZ, DIRULAGUNTZA IZENDUNA
EMATEN DA, ETA PARTE ZAHARREAN BIZI
AUZO ELKARTEAREKIN HITZARMENA
IZENPETZEKO BAIMENA EMATEN DA.**

Udal Gobernuak bere jardunaren funtsa herritarren partaidetzan jartzen du, lurralde osoan eta garatutako udal politika guztietan prozesuak, kanalak, guneak eta elkarren artean jarduteko forma berriak zabaltzeko asmoz. Hauek gertutasunean, hiritarrek harreman estuan, gardentasunean, informazioaren kudeaketa demokratikoan oinarrituak daude, eta konfiantza eta partekatutako ardura erlazio berriak sortu behar dituzte Udala eta donostiarren artean.

Gainera, bada erakunde honen nahia hiriko auzoetan partaidetza sozialaren sustapenean bitartekaritzan jardutea. Elkarte eta herri mugimenduen sare autonomo, kritiko, sortzaile, inplikatu, informatu eta zabala indartu nahian, bide desberdinak eskainiz.

Horretarako, beste bide batzuen artean, Udalak lokalak lagatzen dizkie eragile sozialei espazialki koka daitezen, beraien eguneroko lana jarraikortasunez egin eta proiektuak garatu eta gauzatu ditzaten, baita elkartearen arteko eta beren komunitatearen arteko elkarlana sustatzeko asmoz. Donostiako Auzo Elkarteek Udal lokalak erabiltzeko lagapenak izan dituzte.

2012 urtetik, Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarteak auzoan izaera integralarekin lanean dihardu, udal aginteekin zein erakunde ofizialekin elkarlanean Parte Zaharreko zein hiriko herritarren beharrak asetu eta auzokideen bizi-kalitatean eragina duten arazoei irtenbidea bilatzeko.

Elkartearen helburuen artean komunitatearen parte-hartzea, auzotarren arteko harremanak eta auzoan lan egiten duten kolektiboen arteko harremanak bultzatzea dago.

Parte Zaharrean Bizi elkarteari emandako dirulaguntza izenduna Donostiako Udalaren 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita dago, eta dirulaguntza honi dagokion Planaren fitxan zehaztutako helburu estrategiko eta espezifikoak lortzen laguntzen du. Hona hemen helburu horiek:

**RESOLUCIÓN DE LA CONCEJALA DELEGADA
DE GOBERNANZA ABIERTA Y CULTURA POR
LA QUE SE CONCEDE UNA SUBVENCIÓN Y SE
AUTORIZA LA SUSCRIPCIÓN DE UN CONVENIO
CON LA ASOCIACIÓN VECINAL PARTE
ZAHARREAN BIZI**

El Gobierno Municipal pone en el centro de su acción de gobierno la participación ciudadana, con voluntad de expandir por todo el territorio de Donostia y en el desarrollo de todas las políticas municipales procesos, canales, espacios y nuevas formas de hacer colectivas, que basadas en la proximidad, en la cercanía con las personas, en la transparencia y en una gestión democrática de la información, generen nuevas relaciones de confianza y corresponsabilidad entre el ayuntamiento y las y los donostiaras .

Es además voluntad de este Gobierno ejercer de facilitador en el impulso de la Participación Social en los barrios de la ciudad propiciando a través de diferentes vías el fortalecimiento de un tejido social autónomo, crítico, constructivo, implicado, comunicado y expandido.

Una de estas vías es la cesión de locales públicos para que las entidades se referencien espacialmente, puedan sostener su actividad, desarrollen sus proyectos, tengan espacios en los que encontrarse con otros agentes etc. generando comunidad y dinamizando los barrios y la ciudad.

Desde 2012, la asociación vecinal Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarteak está trabajando con carácter integral en el barrio, en colaboración con las autoridades municipales y organismos oficiales, para buscar soluciones a los problemas que afectan a la calidad de vida de las vecinas y los vecinos de la Parte Vieja.

Entre los objetivos de la asociación está impulsar la participación de la comunidad, las relaciones entre las vecinas y vecinos y los colectivos que trabajan en el barrio.

La subvención nominativa a Parte Zaharrean Bizi está prevista en el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2026 del Ayuntamiento de San Sebastián, contribuyendo al logro de los objetivos estratégicos y específicos definidos en la ficha del Plan correspondiente a esta subvención y que son



Helburu estrategikoak:

- Elkartegintza sustatzea
- Herritarren partaidetza sustatzea

Helburu zehatzak:

- Bizimodu kolektiboa lantzea: elkarlana, auzolana...
- Partaidetza sustatzeko erreferentziazko espazio bat izatea.
- Autoantolakuntza bilatzea.
- Auzoko gune ireki bat eskaintzea.

Donostiako Udaleko irabazi asmorik gabeko elkarten erregistroan inskribatuta dagoen Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkartea Donostiako Udalak antolatutako bilera eta prozesu parte hartzaileetan aktiboki aritu izan da: auzo elkarten lanari buruzkoak, aurrekontu parte hartzaileak, hiri zerbitzu eta mantenuarekin harremana daukaten lan bileretan...

Bere lana garatzeko, Auzo Elkartek erreferentziazko lokal baten beharra adierazi du.

Herri Partaidetza Zerbitzutik, eskura dauden baliabideak kontuan izanik, ia-ia hiriko auzo elkarte guztiek udal lokala izan dezaten lortu da.

Hala ere, Udalak ez du hainbat urtez elkartearen egoitza izan zitekeen udal lokalik izan Alde Zaharrean.

Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkartek, auzo-elkartearen beraren eta auzotarren beharrak baloratu ondoren, bere beharrak asetzeko lokal bat aurkitu dute; Lokal hori Narrika kaleko 31. zenbakiko beheko solairuan dago.

Parte Zaharrean Bizi Elkartek lokal horren gastuei aurre egiteko zailtasunak dituela adierazi du, eta Udalari laguntza eskatu dio. Bere jarduera garatzeko espazio propioa izateak duen garrantzia kontuan hartuta, egokitzat jotzen da lokal horren alokairu-gastuak diruz laguntzea.

Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkartek Donostiako Udalaren aurrekontuko Herri Partaidetzako 2026ko 481.08 partidan 7.200 €ko diru esleipena onartua du.

los siguientes:

Objetivos estratégicos:

- Fomentar el asociacionismo
- Fomentar la participación ciudadana

Objetivos específicos:

- Trabajar la vida colectiva: trabajo colaborativo, "auzolan"...
- Disponer de un espacio de referencia para la promover la Participación Ciudadana.
- Búsqueda de la autoorganización.
- Ofrecer un espacio abierto para el barrio.

La Asociación Vecinal de Parte Zaharrean Bizi, inscrita en el Registro de Entidades Ciudadanas del Ayuntamiento de San Sebastián, ha participado activamente en las reuniones y procesos participativos organizados por el Ayuntamiento: las relacionadas con el trabajo de las asociaciones vecinales, presupuestos participativos, reuniones de trabajo sobre mantenimiento y servicios urbanos...

Para desarrollar su labor, la asociación vecinal ha expresado la necesidad de disponer de un local de referencia.

Desde el Servicio de Participación Ciudadana se ha conseguido en la medida de los recursos disponibles que prácticamente todas las asociaciones vecinales de la ciudad disfruten de un local municipal.

Sin embargo el Ayuntamiento no ha dispuesto durante años de locales municipales que pudieran servir como sede de la asociación en la Parte Vieja.

Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkartea, tras valorar tanto las necesidades de la propia asociación vecinal como de la vecindad, han encontrado un local que satisface sus necesidades. Dicho local se encuentra, en la calle Narrica, 31, bajo.

La Asociación vecinal ha manifestado que tiene dificultades económicas para hacer frente a los gastos de este local y ha solicitado ayuda al Ayuntamiento para poder financiar el alquiler. Teniendo en cuenta la importancia de tener un espacio propio para el desarrollo de su actividad se considera apropiado contribuir económicamente con los gastos de alquiler de este local.

La Asociación Vecinal Parte Zaharrean Bizi tiene consignada una aportación de 7.200€ en la partida 481.08 de Participación Ciudadana del



Aurrekontu esleipen honek dirulaguntza izenduna izaera du.

Horregatik guztiagatik, Gobernantza Ireki eta Kulturako zinegotzi ordezkari honek 2023ko uztailaren 6an eta 2025eko urriaren 29an Tokiko Gobernu Batzordeak emandako botereaz ondorengoa

EBATZI DU

Lehenengoa: Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarteari (IFK: G75064451) 6.534.- euroko dirulaguntza ematea, 2026ko urtariletik abendura bitartean, lokal komunitarioaren alokairu gastuak ordaintzen laguntzeko asmoz.

Bigarrena: Hitzarmena izenpetzea, Parte Zaharren Bizi Auzo Elkartea erakundearen eta Donostiako Udalaren artean. Honekin batera doa hitzarmenaren testua. Hitzarmen horretan jaso dira alderdien arteko eginbideak eta baldintzak, lehenengo puntuan adierazitako dirulaguntza emateko balio dutenak.

Hirugarrena: Gastua 2026ko Aurrekontuko Herritarren Partaidetza Zerbitzuko programako 481.08 kontu-sailan eranstea.

Laugarrena: Esleitutako dirulaguntzaren %70 ordaintzea, hitzarmen hori izenpetzen den egunean, eta gainerako %30 ordaintzea aurreikusitako jarduerak justifikatu eta gero, guztia Kutxabank 2095 5004 43 1064295289 kontu korrontean.

Bosgarrena: Ebazpen honen berri ematea Erakunde onuradunari.

presupuesto del Ayuntamiento de San Sebastián del año 2026. Dicha consignación presupuestaria tiene carácter de subvención nominativa.

Por todo ello, la Concejala delegada de Gobernanza Abierta y Cultura en uso de las facultades conferidas por delegación de la Junta de Gobierno de 6 de julio de 2023 y 29 de octubre de 2025

RESUELVE

Primero: Conceder a la Asociación Vecinal Parte Zaharrean Bizi (CIF: G75064451) una subvención, por importe de 6.534.- euros correspondiente a los meses de enero a diciembre del año 2026, con el objeto de financiar los gastos de alquiler del local comunitario.

Segundo: Suscribir un convenio entre la Asociación Vecinal Parte Zaharrean Bizi y Ayuntamiento de San Sebastián. Mediante el citado Convenio, cuyo texto se adjunta, se recogen las condiciones y compromisos entre las partes por las que se otorga la subvención indicada en el punto primero.

Tercero: Imputar el gasto a la Partida 481.08, Programa del Servicio de Participación Ciudadana, Presupuesto 2026.

Cuarto: Abonar el 70 % de la subvención concedida a la ficha de la firma del citado convenio y el 30% restante una vez justificadas las actividades previstas, en la cuenta corriente de Kutxabank 2095 5004 43 1064295289 .

Quinto: Notificar la presente Resolución a la Entidad beneficiaria.

Donostian, sinaduraren egunean (digitalki sinatua)

Gobernantza Ireki eta Kulturako zinegotzi ordezkaria
Concejala delegada de Gobernanza Abierta y Cultura

Ana López Loyarte